

Euskaltzaindiak Arana Martixaren bibliotekaren katalogoa osatu du

2007. urtean Aranak Euskaltzaindiari bere biblioteka eman zion; trukean, Akademiak katalogazioa egin du.

JULEN NAFARRATE. BILBO

Euskal bibliografiak bere Gabonetako oparia jaso zuen atzo Euskaltzaindia eta Jose Antonio Arana Martixa euskaltzain emerituaren (Gernika, 1931) eskutik. Izan ere, Aranak bere bizitza osoan bildutako bibliotekaren katalogoa aurkeztu zuen atzo Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Andres Urrutia euskaltzainburua ere izan zen aurkezpenean.

2007. urtean Aranak Euskaltzaindiari bere biblioteka eman zion, eta Euskaltzaindiak katalogoa eratzeko konpromisoa hartu zuen. Bi urte igaro ostean, errealitate bihurtu da Euskaltzaindiak agindutakoa, eta pozik agertu dira bi aldeek egindako trukearekin.

Aranak urteotan bere biblioteka pertsonalean pilatutako materiala biltzen du katalogoak. Guztira, 5.657 erreferentzia baino gehiago. Gehienak monografiak edo fitxa analitikoak badira ere, aldizkariak, mapak eta kartelak ere badaude. Gaiak, oro har, Humanitateen esparrukoak dira, hori izan baita Aranari gehien interesatu zaion arloa: kultura, musika, erlijioa, zuzenbidea, literatura, artea... Euskal Herriarekin edo Gernikarekin lotura zuzena dute erreferentzia askok, gernikarra baita euskaltzain emeritua. Arana Martixaren egiletza edo lankidetzaduten 256 obrak ere badira katalogoan. Tartean, euskal bibliografiaren inguruko artikulugari, eta 1983. urtean Resurreccion Maria Azkueri buruz idatzi zuen biografia.

Altxor bihurtutako liburuak ere jasotzen ditu bibliotekak; izan ere, 65 liburu 1820. urtea baino lehenagokoak dira. Euskaraz idatzita dauden liburuak, berriz, bilduma osoaren herena dira.

Euskaltzaindiak kaleratzen duen hirugarren katalogoa da atzo aurkeztutakoa. "Jose Antonio Aranak merezi du, eta euskal bibliografiak ere bai. Haren lana gizarteari eskaini behar zaio, eta halaxe egin dugu, adierazi zuen Urrutiak. Katalogoa Internet bidez kontsultatzeko aukera egongo dela ere iragarri du euskaltzainburuak, katalogoaren pdf-a Euskaltzaindiaren webgunean "laster jarriko dutelako.

"Eredugarria"

Biblioteka pertsonala eratzen zuen bitartean, 1979. urtean Euskaltzaindikolibliotekan ere lanean hasi zen Arana, gerora, hare proposamenez, Azkue Biblioteka legez izendatu zutena. Resurreccion Maria Azkue izan baitzen Arana Martixaren eredu eta maisua. 1988. urtean, euskaltzain oso izendatu zuten. Andres Urrutiaren hitzetan, "Jose Antonio, Azkue Bibliotekaren arima eta hauspoa izan da, bera izan da Azkue bibliotekaren haria eraman duena urte luzeetan. Azkue Biblioteka izan da, hain zuzen, katalogazio lanaz arduratu dena.

Oraindik orain, Arana Azkue Biblioteka ren zereginetan lanean jarraitzen duela gogorarazi du euskaltzainburuak. "Bizkaitar euskaltzain osoen dekanok Jose Antonio Aranari ezin uka dakioke eredu garritasuna. Bibliografia, biblioteka askorentzat erakargarri egin ditu, Akademiaren barruan zein kanpoan. 2000. urteaz geroztik, Aranak osasun arazoak izan ditu, eta horrek eragin du hark bere biblioteka Euskaltzaindiaren esku uztea. Bost ebakuntza egin zitzaizkion, eta osasunez ahul zegoenez, ezinezkoa egiten zitzaion bere etxebizitzako hirugarren solairura igotzea. Orduan igogailua zeukan beste etxebizitza batera aldatzea erabaki zuen. Etxebizitza berrian ez ziren sartzen bildutako liburu guztiak, eta azkenean Euskaltzaindiari ematea erabaki zuen.

JOSE ANTONIO ARANA MARTIXA. Euskaltzain Emeritua

«Euskaltzaindia da lekuri aproposena bibliotekarako»

5.657 erreferentzia biltzen ditu Jose Antonio Arana euskaltzain emerituaren bibliotekak. Urteak eman ditu Aranak bere biblioteka osatzen, 2007. urtean Euskaltzaindiari ematea erabaki zuen arte.

Zein da katalogo honek egiten duen ekarpen nagusia?

Ez da erraza galdera horri erantzutea, katalogo honetan nire bizitza osoan bildu ditudan milaka liburuak agertzen direlako. Hainbat arlo biltzen ditu, nire bizitzan maitatu izan ditudan edo interesatuta egon naizen gaien buruzkoak. Adibidez, musikan lan eginda nago, musikari buruzko hainbat lan egin ditut. Lana gustura egin dut, baina biblioteka hau osatzeko orduak eta orduak sartu nituen.

Zure biblioteka zure zaletasunen isla da?

Bai, erreferentzia guztiak humanitatearen ingurukoak dira. Gauza teknikorik ez dago, beti ibili naiz kulturaren munduan murgilduta. Euskararen gehienbat, edo etnografian, historian... eta humanitatezko beste arlo batzuetan.

Osasun kontuengatik etxebizitzaz aldatu eta bibliotekak lekuri aproposena ez zela ikusita, zergatik eraman zenituen funtsak Euskaltzaindiara eta ez beste erakunde batera?

Hasiera batean Biblioteka Nazionalaren kontua neukan buruan, nire biblioteka horren zati txiki bat izan zitekeela uste nuen. Tabakalera ikustera joan nintzen. Garai horretan obretan zebiltzan, eta ez zidan itxura onik eman eraikin hark. Batez ere denboragatik, ezin nintzen urteak itxaroten egon. Seme-alabei ere eskaintza egin nien. Bakoitzak interesatzen zitzaizkion gaiari buruzko liburuak hartzeko esan nien, baina ezetz esan zidaten, biblioteka ezin zela zatitu. Oso-osorik erakunde batera eramatea erabaki genuen, hori baita luzaroan edo betirako bizirik mantentzeko bide bakarra. Euskaltzaindia zen aproposena, hemen bizi izana nintzen ni urteotan liburu artean, eta hona ekartzea pentsatu nuen. 255 kutxatan ekarri genuen, eta orain pozik eta lasai nago. Gainera, libururen bat beharko banu, badakit non dauden, eskatuko nuke eta kito.